



BIGARRENEZ, BARAZKI ETA ANIMALIA AZOKA

Alegiko plazan egiten ari diren obrak direla-eta Bulebarrean izango da igandean; azaroan 2. eskuko azoka egingo dute 6

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2008-10-15**

VIURTEA 1.534.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Orotara, 63 zaldi elkartu zituzten pasa den asteburuan Leitzatik Goizuetarako ibilbidean. HITZA

63 ZALDUNEK OSATU DUTE IBILBIDEA GOIZUETARAINO

LEITZA Aurrera Perra taldeak antolatu zuen irteera Leitzatik pasa den asteburuan, 'Leitza, Mugaz-muga 08' egitasmoaren baitan 7

Ekitaldiz beteriko asteburua antolatu dute Bonberenean

TOLOSA Bihar eta etzi kontzertuak izango dira; larunbatean, skate, graffitiak eta musika 3

**Turismoa
bultzatzeko
eskaintza
berezia prestatu
dute negurako**

TOLOSA Eskualdeko landetxe batean 2 gau igaroz gero, Usabalgo Spara sarrera doan 5

Helburua bete dute Igarondo elkartekok Stock Azokan

TOLOSA Jendetza hurbildu zen Beotibar frontoira eta «oso gustura» daude antolatzaileak 2



Galiziako Muxia herriaren inguruan aterata zituzten argazkiak. HITZA

Prestigek utzitako hondamendia, irudietan bilduta

HERNIALDE Gillenea eta Martinez de Albenizen 'Galiza belztua' argazki erakusketa dago ikusgai 4

«Helburua beteta, oso gustura» azaldu dira Igarondo elkartekoak

Ekonomia » «Bi egunetan lan handia» izan dute Stock Azokako dendariak; balantze «oso positiboa» egin dute.

ERREDAKZIOA

«Neka-neka eginda» amaitu zuten asteburuan II. Stock Azokan parte hartu zuten merkatariek. Jendetza erakarri zuen Igarondo elkarteko dendan azokak Beotibar pilotalekura eta, ondorioz, «lan asko» izan zuten. Elkarteko lehendakaria den Anate Iturralde balantze «oso positiboa» egin du, izan ere «jendeak oso ondo erantzun zuen».

Lan handia suposatzen du azoka antolatzea: «Bi egunetz izaten den lanaz gain, material guztia aukeratu egin behar da, prezioa jarri eta kaxatan sartu ondo bereiztuta, gainera, igandean berriz ere arropa gehiago atera genuen». Hori dela eta, «ezinezkoa» da urtero antolatzea; hurrengo edizioa egon



Goizean goiz hurbildu zen jendea Beotibar pilotalekura. E. EZBZA

egongo dela baieztatu du Iturralde, baina «biedo hiru urte barru».

Guztia, 100 euro azpitik

«Benetako pagotxak» izan ziren aukeran Stock Azokan, izan ere,

kalitatezko produktuak ziren eta gehienak ere 100 euroko materiala erosi ahal izan zuten bertaratuak. «Adibide bezala, aurreko udaneguko produktu batzuk, 150 euro ingurukoak, 10 eurotan jarri geni-

tuen, benetan eskaintza bikainak dira», aitortu du Iturralde.

Modaren «azkartasunak» bultzatzen ditu, hein batean, horrelako ekimenak. Izan ere, «urte bate-tik bestera moda ikaragarri aldatzen da, segituan zaharkiturik geratzen dira produktua». Gauzak horrela, dendetan saldu gabe geratzen den materiala hustutzea zen helburua eta «gutziz bete» dute.

«Jendeak erosteko beharra azaldu du»

Elkartetik azaldu dutenez, Stock Azokaren bigarren edizio honetan jende kopuru berdintsua ibili da, pasa den edizioarekin alderatuz gero. Hala ere, «pasa den edizioan jendea gehiago zaletasun bezala hurbildu zen, zegoena ikustera; aurtengoa, berriz, jendeak erosteko beharra erakutsi du», argitu du Iturralde. Krisia izango da? Tolosan, behintzat, horrelakoek arrakasta dutela baieztatu dute Igarondokoek bigarren edizio honetan.

Hainbat herrialderen sukaldaritza gerturatuko du 'Gure saltsan'-ek

Komunikabideak » Etorrkinen euren herrialdeetako jakiak prestatuko dituzte, euskaraz; 28 kanalean emitituko dute.

ERREDAKZIOA

Zarauzko Udalaren Immigrazio sailak aurrera eraman duen ekimen baten bitartez, *Gure saltsan* izeneko saioa jarri du martxan eskualdeko tokiko telebistak, 28 kanalak, Tolosaldea Garatzen garapen agentziaren babesarekin.

Gure saltsan sukaldaritza saio bat da; bertan, hainbat etorkinek euren herrialdeetako sukaldaritza ezagunak diren jakian prestatzen irakatsiko dute, saioa euskaraz landuko dutelarik.

Pasa den ostegunean ekin zion 28 kanalak sukaldaritza eta euskaraz uzartzen dituen saioaren emisioari eta haxe izango da ordutegia: ostegunero, 08:30, 12:30 eta 16:30ean eta igandero, berriz, 11:30, 15:30 eta 19:30ean.

Garaipenak maila guztietan

Mahai-tenisa

Espainiako Bigarren Mailako nahiz Euskadiko Lehen Mailako taldeek irabazi egin zuten.

Hasiera berdindua izan zen bi taldeentzat, markagailuko berdinketak isladatzen zuten bezalaxe. Eric Diezek lehen puntua lortu zuen 3 eta 2ko emaitzarekin aurkariari aurre hartu ziolarik.

rraren aurrean. Partida ikusgarria izan zen eta biak ere izan zuten irabazteko aukera garbiak. Gauzak honela, lehen bi puntuak eskuratu ditu taldeak.

Izagirre eta Martin, bina puntu

Euskadiko Lehen Mailakoek Usabalgoko kiroldegian jokatu zuten euren jardunaldia, Henaniko Krafft Atletiko taldearen aurka. Olaederako taldeak Mikel Martin, Ion Caminos, Beñat Izagirre eta Xabier Juantorena kantxaratu zituen.

Bikain jokatu zuten, Olaederako goi mailakoek bezalaxe. Jardunaldi berezia izan zen, gainera, Ion Caminosek eta Xabier Juantorenak debutatu egin baitzuten mahai-tenis taldean. Halaber, egun berezia izan zen Beñat Izagirre-

rentzat, berak lortu baitzuten garaipena eman zien lau puntuetatik bi. Gainontzeko beste bi puntuak Mikel Martinek lortu zituen, taldearentzat ezinbesteko bilakatzen ari den jokalaria, hain zuzen. Amaieran, beraz, 4 eta 2koa etxekoentzat. Garaipen honek konfiantza emango dio taldeari, sailkapenean postu onak lortzeko.

Datorren jardunaldia, etxean

Datorren jardunaldian pentsatzen ari dira dagoeneko Olaederako jokalariek. Bi taldeak etxean ariko dira. Bigarren Mailakoak Zaragoz taldea hartuko du Usabalen larunbatarekin, 16:30etik aurrera. Lehen Mailakoak, berriz, Irungo Leka Enea taldearen aurka ariko da Usabal kiroldegian.

ERREDAKZIOA


Olaederra mahai-teniseko bi taldeek jardunaldi biribila izan zuten pasa den asteburuan eta biak ere garaipena eskuratu zuten.

Espainiako Bigarren Mailakoek Burlatan jokatu zuten, Lehen Mailatik jaitsi berri den taldearen aurka. Partida estua izan zen, beraz, aurretik. Emiliano Anton, Iker Mugerza eta Eric Diez aritu ziren Olaederako taldearen aldetik eta, beste behin ere, euren joko ona erakutsi zuten.

Iker Mugerzaren lana, txalogarria

Emiliano Antonek, aldiz, galdutako egin zuen Garralda nafarraren aurka 3 eta 0ko emaitzekin. Berdinketa Mugerzak apurtu zuen, 3 eta 0ko emaitza bikaina lortuz. 16 urte besterik ez ditu eta oso maila ona erakutsi zuen.

Bikoteen arteko neurketan, ordea, nafarrentzat izan zen. Honek biko berdinketa jarri zuen markagailuan. Hala, azken partida erabakiorra bilakatu zen eta Eric Diezek ez zuen hutsik egin Garralda nafa-



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitzza.info / Tel.: 943-65 56 95

Musika, graffitiak eta skate-a izango dira nagusi asteburuan, Bonberenean

Tolosa » Hilabete honetarako hainbat ekitaldi antolatu dituzte; datozen egunetan, bost talderen kontzertuak izango dira.

ESTI EZEIZA

Indar biziz eta ekitaldi ugariarekin dator asteburu hau Bonberenean. Alde batetik, bost taldek eskainiko dituzte kontzertuak, eta bestetik, urteroko ohiturari jarraituz, skate txapelketa eta graffiti erakustaldia izango dira.

Ostegunean hasiko dira astebururako motorrak berotzen. Horretarako, taula gainean izango da Ecowar talde holandarra. Honek bere hirugarren lana aurkeztuko du Bonberenean. *Defending the land* izena du beraien azken diskoak. Bi kidek osatzen dute taldea eta Anarcho-punk estiloko musika egiten dute.

Hurrengo egunean, ostiralean beste bi talderen azken lanak entzuteko aukera izango da. Alde batetik, Karelean-ek duela gutxi kaleratu duen 56. *gelatik* diskoak joko ditu. Bestetik, Napoka iriak, bere lehen maketa aurkeztuko du.

Egun gutzitako festa

Larunbatean, gauean ez ezik, egunez ere izango da zer ikusirik Bonberenean. Zortzigarren aldiz, Skate Txapelketa jokatu da. 16:30ean hasiko da lehia. Bertan, eskualdeko gazteak skatean ibiliko dira. Musika eta sariak ere izango dira hemen. Bestetik, garai berean, graffiti erakustaldia egingo dute etxe okupatuaren kanpoaldean.

Eguna ongi amaitzeko musika



Larunbat honetan, 16:30etik aurrera, Graffiti erakustaldia izango da; garai berean, skate txapelketa. NEREA URBIZU

» BONBERENEAKO HILABETE HONETAKO EGITARAUA

Urriak 16, bihar

■ Ecowar.

Talde holandarra entzuteko aukera izango da 22:30etik aurrera.

Urriak 17, etzi

■ Karelean eta Napoka iria.

22:30ean hasiko da bi taldeen kontzertua.

Urriak 18, larunbata

■ 8. Skate txapelketa eta graffiti erakustaldia.

16:30ean hasiko dira ekitaldi gutxiak.

■ Black lagun eta Foison Four.

22:30ean hasiko talde hauen kontzertua.

Urriak 24, ostirala

■ Lauroba eta Chicarella.

22:30etik aurrera entzungai izango dira bi taldeak.

Urriak 25, larunbata

■ Gaueko itzalak eta Ipar haizea.

22:30ean hasiko ta bi talde hauen kontzertua.

Urriak 26, igandea

■ Tex & The sun flowers eta Esne Beltza.

22:30tik aurrera entzungai izango dira bi taldeak.

izango da protagonista Bonbereneako eszenatokian. Taula gainean izango dira Black lagun eta Foison four taldeak. Lehendabiziko taldea Burlatetik dator eta bigarrena Lazkaotik.

Asteburu honetan ekitaldi ugari izango badira ere, hilabete osorako prestatu dituzte kontzertu eta emanaldiak Bonbereneakoek. Honela, egun, Euskal Herrian entzute handia lortzen ari diren taldeez gozatzeko aukera izango da. Horren adibide izango dira Lauroba eta Esne Beltzaren kontzertuak. Bi talde hauek duela gutxi kaleratu baitituzte beraien lehen lanak, eta pixkanaka tokia egiten ari dira euskal musikaren munduan.

'A' bout de suffle' filma izango da ikusgai bihar, Leidorren

Tolosa » Ohikotasunetik ateratzen saiatzen den lana da Jean Luc Godard-ena; 19:15ean eta 21:45ean izango da ikusgai.

ERREDAKZIOA

Bihar iluntzean Zine-forumean Jan Luc Godard-en *A bout de souffle* filma izango da ikusgai. Leidorreko lehendabiziko saioa 19:15ean izango da, eta bigarrena, 21:45ean.

Filmaren mamia ondorengoa da: auto lapur bat lapurputako ibilgailu batean dabil Marseille-Paris errepidean. Bidean, azkarregi joategatik, polizia bat isuna jartzen ahaleginduko da; lapurrak polizia hilko du, ordea, eta ihesaldi zoro bati ekingo dio. Parisen, kazetari izan nahi duen ikasle gazte estatubatuar bat ezagutuko du eta dirua lortu arte bere etxean gorde dezan konbentzituiko du.

Monumentu handirik gabeko Paris bat erakusten du filmak; Eli-seoko Zelaia angelu itxian, Eiffel Dorrea ez da ageri, eta barrualdeak, klubak eta zine aretoek hartzen dute protagonismoa.

A bout de souffle filmak konbentzionaletik ihes egin nahi du, eta hamaika alditan kopiatu duten eta milaka filmen kaligrafia narratiboa eragin duen arren, berezia dirudi oraindik. Film hau, oinarrian, biziz beteriko zinema puska da; bizi episodikoa, amoral eta benetako.

Godard handiaren opera prima txundigarria dugu hau, Nouvelle Vagueren lan giltzarria. Baliabide urriekin eta istorio erraz batekin, Godardek benetako maisu lana egin zuen. Minimalista, naturala, apurtzailea eta, beharbada, axolagabea. Muntaketa bortitza du, eta alde zurreratik ezer prestatu gabe errodatu zuten (harrigarria da ikustea kalean pasieran dabilen jendeak nola begiratzen dion zuzenean kamerari) kamera eskuan hartuta eta argazki guttiz naturalak erabilita; Godard adierazgarri nagusien artean zuen abangardia berriaren oinarriak ageri dira zintan.

Bide Ertzeanen aspaldikoak gogoratzuz

Berastegi » Talde tolosarrak kontzertua eskainiko du larunbat honetan, 22:30ean, Urepel elkarte.

ERREDAKZIOA

Bide Ertzean taldeak kontzertua eskainiko du larunbat honetan, Berastegiko Urepel elkarte. Aspaldi jo gabeko hainbat kantu gogora ekarriko dituzte 22:30etik aurrera. Kontzertua irekia izango da, eta dohain.

Hirukote moduan agertuko dira Bide Ertzeanekoak, larunbat honetan Berastegira. Duela 10 urte hasi ziren bezala. 1998ko udazkenean plazaratu zuten beraien le-



Duela 10 urte hasi zen hirukotea izango da Berastegin, larunbat honetan. HITZA

hendabiziko diskoa, eta orduko lan hori eskaini nahi diete berastegiarrei. Oso-osorik joko dute diskoak, goitik behera, kantuen ordena

errespetatuz. Ondoren, hamarkada honetan ateratako gainontzeko diskoetan bildutako lanak entzuteko aukera izango da.

Duela hamar urte bezala, orain ere, ilusio, asmo eta proiektu asko dituzte Bide Ertzeanekoek buruan. Hala, beraien esanetan, laislan berri batekin etorriko dira.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Ikaztegieta etxebizitza salgai. Herriaren erdigunean kokatua. Igogailu eta bi balkoi ederrekin. Interesatuek deitu iluntzetan ondorengo telefono zenbakietara: 628 69 88 07 edo 666 61 57 66ra.

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai, Tolosako Alde Zaharrean. Mer-

kea, obra egin behar da. Interesatuek deitu 657 23 0011era edo 634 91 94 82ra.

LANA

■ **Kamarera.** Anoetan esperientzia duen kamarera bat behar dugu. Igandeetan jai. Interesatuek deitu ondorengo telefono zenbakira: 650 04 31 39.



Ander Gillenea eta Josune Martinez de Albeniz argazkilariek erakusketan ikusgai dituzten zenbait argazki, Galiziako Muxia herri inguruan ateratakoak. HITZA

Prestigeren hondamendiari begirada

Hernialde» Ander Gillenea eta Josune Martinez de Albeniz argazkilariek 'Galiza Belztua' erakusketa daukate ikusgai herriko ostatuan.

IMANOL GARCIA

Sei urte beteko dira azaroan Prestige itsasontzia hondaratu zela eta batez ere Galiziako kostaldean kalte zuen bertatik isuritako petrolioak. Ander Gillenea eta Josune

Martinez de Albeniz argazkilariek kostalde horretan izan ziren eta han ateratako argazkiekin *Galiza Belztua*, *Terra ennegrecida* erakusketa osatu dute. Erakusketa horretako zenbait argazki ikusgai daude

Hernialdeko Ostatuan urriaren amaierara arte.

«Gobernuak hondartzak garbiak zeudela esaten zuen garaian izan ginen Galizian», gogoratzen du Ander Gilleneak ironiaz. Muxia inguruan izan ziren eta egun batzuk hondartzak garbitzen lagundu eta gero, argazkiak ateratzen izan ziren.

Ez zen zaila izan argazkiak ateratzeko materiala topatzea. «Mu-

xiako hondartza nahiko garbia zegoen, baina hortik bost kilometrotara zegoen beste leku batean, udan jendea eguzkia hartzen joaten zena, guztiz beltza zegoen».


Beltza nagusi

Argazkiak koloretan dira, baina izenburuak dioten bezala beltza da kolore nagusia. Bi kamera erabili zituzten, bata digitala eta bestea analogikoa. Erakusketak guztira

34 argazki osatzen dute, baina Hernialdeko Ostatuan dozena bat daude jarrita, lekuak ez zuelako gehiagorako ematen. «Denetatik jarri dugu hamaika-hamabi argazki horietan, hau da, erakusketara berrituzeko», azaltzen du Gilleneak.

Beste argazkiak ezagutzeko katalogo bat dago Ostatuan bertan eta bost eurotan saltzen dute. Bertan, testu bat jarritako dago euskaraz, galzieraz eta gaztelaraz.

iragarkilaburrak.com
EUSKALDEKO IRAGARKI ABURREN OTARIA



zure-irragarkia tolosaldetik eta leitzaldetik euskal herrira
tolosaldeko hitza. iragarkilaburrak.com

iragarkia jartzeko: www.tolosaldeko hitza.iragarkilaburrak.com/ 943-65 56 95/ Araba etorb. 5 atzea • Tolosa / Herriko plaza 1 • Leitza
webgunean, ostiralero Euskal Herri osoan paperezko edizioan eta HITZA egunkarian argitaratuko da

Euskal dantzak ikasteko aukera dago oraindik ostegunetan, Amaratzen

Tolosa » Amaroako Auzo Elkarateak antolatuta du ekimena; bertan ikasitakoa auzoko jaietan erakutsiko dute.

ERREDAKZIOA

Amaroako Auzo Elkarateak antolatuta, euskal dantza ikastaroa hasi zen joan den ostegunetan. Lehen-dabiziko saioan aurreneko hila-be-teetako plangintza egin zuten eta aurten ikasiko dituzten dantzak hautatu zituzten. Baina oraindik ere, atek zabalik daude, eta interesa dutenek izena eman dezakete.

Saioak ostegunetan, 20:30ean izaten dira, Amaroako Auzo Elkarateko lokaletan. Saio hauetan ikasitakoa, ohiturari jarraituz, Amaroako festetan aurkeztuko dute jendaurrean. Dena den, fandangoa eta arin-arina ikasteko ere tartea izango da. Zer nolako dantzak ikasi eta praktikatu erabaki ostean, ostegunero elkartu dira, Udaberri dantza taldeko irakasle- en aginduetara.

Komikiak nola sortu ikasteko aukera izango da bihar, Ibarako Kultur Etxean

ERREDAKZIOA

Galtzaundi Euskara Taldeak ikusgai jarri ditu Joseba Antxustegietxarteren komikiak, Ibarako Kultur Etxean. Erakusketa hilaren 24a bitartean egongo da zabalik. Bestalde komikigileak hitzaldia eskainiko du bihar, 18:30ean, Kultur Etxean bertan. Jardunaldian, komikiak nola sortzen diren azalduko du tolosarrak.

Antxustegietxarte 1997. urtean hasi zen Tolosaldeko Herri Aldizkarirako komikiak egiten, eta geroritik, hamabostean behin hutsik egin gabe, borondatez egiten du lan hori. Hau eskertzeko eta aitortzeko komiki erakusketa antolatuta zuten Galtzaundik Ibarako Benito Izagirre kultur etxean eta erakusketa hau eskualdean zabaltea da euren asmoa.

Turismoa sustatzeko eskaintza berezia prestatu dute negurako

Gizartea » Tolosaldeko landetxe batean bi gau igaroz gero, Usabalgo Spa zerbitzuetarako sarrera dohainik eskainiko dute.



Usabalgo Spa zerbitzua dohainik eramateko aukera dago. HITZA

ERREDAKZIOA

Udazken-negusaso honetan datorren «krisiari» aurreko egiteko asmoarekin, Tolosaldea Garatzen Turismo sailak, Tolosako udal-txeak eta Nekots-ek (Tolosaldeko nekazalaturismoen elkarteak) promozio bat martxan jartzea erabaki dute. Egitasmoa ondorengo honetan datza, Tolosaldeko nekazalaturismo batean bi egun igaroz gero,

sarrera doan izango dute bezeroek Tolosako Usabal kiroldegiko Spa zerbitzuetarako.

2.000 eskuorri prestatu dituzte hainbat lekutan banatzeko: Tolo-

saldea Tourreko karpa ibiltarian, Tolosaldea Gipuzkoa Zein Berdearen barne parte hartzen duen azoketan, Nekatur-en Donostiako bulegoan, Kursaallean; Tolosaldea

Tourreko bulegoan, Tolosan... Promozio hau frogar bat da eta hiru hilabeteko iraupena izango du gutxi gorabehera, hau da, datorren urteko urtarrilaren 11ra arte. Formula arrakatsua izango dela espero dute arduradunek, eta etorkizunean, errepika daitekeena.

Tolosaldeko hamaika nekazalaturismo eta landetxek egin dute bat ekimen berritzaile honekin. Ondorengo hauek hain zuzen ere: Amezetako Handikoak, Lizartako Illarrazuk, Berastegiko Bazterretzek, Albizturko Segore-etxe berrik, Tolosako Kortetak, Alkizako Letek, Adunako Zabalek, Zizurkilgo Goizaldi eta Ziasorok, eta Asteasuko Saskaite eta Ugartek.

Landetxe hauetako bezeroak larunbatetan, 17:00etatik 20:00etara joan ahal izango dira Usabal kiroldegiko Spa zerbitzura. Igandetan, berriz, 11:00etatik 14:00etara bitarte.



Foruen etorbidea beste norabidean

TOLOSA » Herrian ur saneamenduen inguruan egiten ari diren obregatik, trafiko aldaketa nabariak izango dira laster. Horieta bat aste honetan abian jarri dute. Hain justu, Foruen etorbidea beste noranzkoan jarri dute. Horrela, orain ezingo da San Frantzisko etorbideetik Foruen etorbidera joan eta bai alderantziz. Semaforoa ere jarri dute San Frantzisko etorbidera sartzeko. Bestalde, Nafarroa etorbideetik sartu ahaliko da bai ohiko norabideetik, bai Ibarako zubitik egokitu duten bidean. I. GARCIA

PURRITX, PORRITX eta MARIHOTATS

PANPINAK

DVD berria etxeko txikiak jolasteko

DVDa (posterra opari) **18€**

Panpina bakoitza (txapa opari) **20€**

Egin eskaria amaitu baino lehen **902-82 02 01 edo harpidetza@hitza.info** adierazi harpidetza kodea

hitza

Basatia EUSKAL HERRIA

NATURAREN BIKAILERU BAZTER

Eskura ezazu berriekin **Urriak 18**

Tontor nagusik

berria **3,90€**

berria

hitza

KEY-LAN Sarraingintza

Nalanda etorb. 11 behean - TOLOSA

Mug.: 678 41 79 22

Tel./Fax: 943 65 03 13

Igandean Bulebarrean egingo dute II. Barazki eta Animalia Azoka

Alegia » Mihi-urdiraren gaitza dela eta, hainbat animalia ez dira bertaratu ahal izango, baina giroa ez da faltako.

NEREA URBIZU

Alegian, datorren igandean Alegiako II. Barazki eta Animalia azoka izango da. Joan den urtean azaroan egin zuten, baina aurreko lehenago egin nahi izan dute, batez ere, barazki aldetik, aukera gehiago dagoelako. Herritarrek osatutako azoka izango da, eta plazan izan beharrean, Bulebarrean izango da.

Azokan mihi-urdiraren gaitza dela eta ardi-azienda (ardiak, ahuntzak, antxumeak) eta behiak ez ditu bertaratzen denak ikusiko. Beraz, han ikusi ahal izango direnak, zaldiak eta hegaztiak dira.

Azoka hau Alegiako Udazken Kulturalaren baitango ekitaldia da, baina ez lehenengo: aurretik kontzertu bat ere izango da, larunbata iluntzean.



Azokan zaldiak eta hegaztiak izango dira animalien artean. Azoka ez da plazan izango, obretan baitaude. A. IMAZ / N. URBIZU

San Juan kaleko lanengatik, Bulebarrean

Plazan obretan ari dira, San Juan kaleko eraberritze lanean, hain zuzen: telefonoko kableak, gasa, argiztatzeakoak... sartzen ari dira. Horregatik, aurten ez da posible izan azoka bertan egitea. Iraila

aldera hasi ziren obrek, plazatik Ikaztegieta aldera, eta alkatearen hitzetan, «oso erritmo onean doaz lanean, epeen barruan eta abentua eta urtarilla bitarte horretan bukatuta egotea espero dute langileek».

San Juan kaleko lehen fasea bu-

katuta dago, hau da, plazatik Tolosalderako aldea.

San Juan Kalea orain arte bezala geldituko da, hau da oinezkoentzat izango da eta garajea kale honetan duten autoak bakarrik sartu ahal izango dira bertara. Bestela ere, karga eta deskarga ordutegia

izango da, dendetara hurbildu behar diren garraioak sartzeko, hain zuzen ere.

Azaroan 2. Eskuko Azoka

Azaroaren 23an, igandea, 2. Eskuko Azoka egingo dute. Azoka berezia izango da, elkartasun azoka, bertan bildutako dirua Boliviaraino iritsiko baita: hango zonalderik behartsuenean, Ipar Potosian, martxan den nekazal eskolara bideratuko dute. Horretarako, herritarrek emandako arropa, jostailu, liburu eta diskoak bildu eta salmentan jarri nahi dituzte, prezio sinboliko batekin.

Barnetegia Andeetan dago, Karpuyo lurraldean, eta neska-mutil indigenak ibiltzen dira bertan. Barnetegiak haurren eskolaratzea bermatzeko helburua du, hezkuntza kalitatea hobetzeko bakarrik lor daitekeelako bizimodua hobetzea.

Dirua eskolarentzat

Bildutako dirua eskolan behar duten materiala erosteko erabiliko da. Arropak, liburuak, diskoak edota jostailuak Kultur Etxean azaroaren 10a baino lehen utzi ahal izango dira. Kontuan izan behar da arropa eta materiala herrian bertan saltzeko dela; hortaz, erabili daitezkeen eta txukun daudenak izatea eskatzen da.

Helduentzako bertso eskola osatu nahian

Ikaztegieta » Gaur da bertsoetarako interesa duenak izena emateko azken eguna, udaletxera bertara deituta.

ERREDAKZIOA

Herriko gazte talde bat Ikaztegieta Udaletxearekin harremanetan jarri da, bertan helduentzako bertso eskola bat jartzeko nahiarekin. Bertsozaleen elkarteokien

ere hitz egin dute eta gutxieneko sei lagunez osaturiko taldea beharko litzateke ekimena martxan jartzeko.

Klaseak astean behin izango litrateke, parte-hartzaileen artean adostutako ordutegian. Interesa dutenek, izena eman dezakete udaletxean, gaur azken eguna izanik: 943 65 33 29.

«Txapelketa Nagusirako bertso larrik ez da agian aterako, baina akaso afarrietan bertsoen bat kantatzeko adinakoa bai».

Nafarroa Oinezera joateko autobusa

Ikaztegieta » Izena emateko azken eguna gaur izango da, udaletxean: 22ko taldea osatzu gero aterago izango da.

ERREDAKZIOA

Datorren igandean (hilaren 19) Iruñean Nafarroa Oinez ospatuko dute (Jaso ikastola). Ikaztegietatik bertara joateko autobusa abiatuko da, nahikoa jendeak izena ematen

badu behintzat. Horretarako 22 lagun behar dira, eta izena emateko epea gaur bertan bukatzen da.

Nafarroan euskarari laguntza ematera joateko asmoa duenak Udala Bulegoetan eman dezake izena (943 65 33 29). 5 euro balio du joan-etorriak. Ikaztegieta Udala garraioa finantzatzeko aukera ematen du baina Udalak ez du ekintzarik antolatuko, ez eta ardura dute (Jaso ikastola). Ikaztegietatik bertara joateko autobusa abiatuko da, nahikoa jendeak izena ematen

Tolosako Orfeoien 'El caserio' ikuskizunerako sarrerak salgai

ERREDAKZIOA

Tolosako Orfeoien 10. urteurreneko ospakizunen baitan, Tolosan eskaini zuen lehen obra plazaratuko dute berriro urriaren 18an, larunbatean, Leidor aretoan: Jesus Guridiren *El Caserio* zartzueta. Sarrerak salgai daude Kutxaren webgunean eta zinemako leihatilan bertan.

Laburak

Aste honetan, Ibarren eta Tolosan, Aurrera-Saiaz

PILOTA • Aurrera-Saiaz pilota eskolako kadeteak Ibarren ostiralean ariko dira 19:00etan. Ondoren, seniorrak ariko dira (Pikabea-A. Gallarraga Antiguakoren kontra). Beotibarren ere ariko dira, 19:30ean hasita. Zubiri seniorra lehenik, NARBARTO-Lopetegi bikoteaz jarraituta, eta azkenik, Renobales-Gallarraga jokatu, kasu honetan Bergarako bikote baten kontra. Beraz, Beotibarren 3 partida jokatuko dituzte Aurrera-Saiazekoek, eta Ibarren, berriz, 2.

Sendotza prestatzen hasiko dira ostiraletan

TOLOSA • Tolosako Santa Maria parrokian 16 urtetik gorako gazteentzat Sendotza Sakramentua hartzeko prestaketa hasi dute dagoeneko. Ostiraletan izango dituzte bilera denek elkarrekin, iluntzean, 21:00etatik aurrera. Bilera hauek Atsedena lokalean izango dira, Andre Maria plazan, 2. zenbakian. Sendotza prestatzen hasitako asmoa duenak izena eman dezake, ostiraletan bertan, bilera-erara. Beraz, interesa duenak, ostiraletan du aukera.

Idoia Sanchez ipuin-kontalaria Anoetalean

ANOETALDEA • Bihar Iruran eta Hernialden Idoia Sanchez ipuin-kontalariaren saioak izango dira. Iruran 17:30ean izango da bertako liburutegian. Ondoren, Hernialdera joango da eta 18:30a aldera hasiko da ipuinekin, bertako liburutegian. Hernialden, saioaren ondoren, hurbiltzen diren guztientzat merienda izango da. Ipuin-kontalariaren saioak Galtzaundi euskara taldeak antolatuko ditu. Datorren astean beste hainbat herritar ariko da Idoia Sanchez.

Elkartasun egunerako bazkariko txartelak salgai

LIZARTZA • Azaroaren 1ean Lizartzan Elkartasun Eguna antolatuko dute herritarrek. Honen baitan ziklo jatea izango da eta txartelak daude salgai, hilaren 23ra arte (osteguna) 22 euroan. Txartelak ohiko lekuetan eskura daitezke (Tolosan, Iruran, Oresa, Anoeta, Irura, Ibarren eta Arribeko surtidorean). Egun horretan goizean goizetik izango da jaia iluntzera arte, zantzarrekin, dultzaineroekin, ikuskizunekin eta trikilariekin lagunduta.

Linazasorok bere azken liburua aurkeztuko du gaur

TOLOSA • Karlos Linazasoro idazlea tolosarrak bere azken liburua aurkeztuko du gaur, Donostiako Elkar Aretoan, 12:00etatik aurrera. *Zein beste mundukoa* du izenburu tolosarraren azken poesia liburua. Egileak, liburu honetan, txunditurik begiratzen dio bizitzari, eta aldi berean burulaize pixka batekin, ingurua agertzen zaiona erabat benetako ote den zalantza egingo balu bezala. Gazteentzat zuzendutako poesia bilduma idatzi du Linazasorok.



63 zaldi elkartu zituzten iragan asteburuan Leitzatik Goizuetarako bidaian. HITZA

63 zaldiko taldea osatu zuten 'Leitza Mugaz-Muga 2008' ibilaldia egiterakoan

Leitza » Iragan asteburuan Goizuetarako joan-etorria egin zuten Lapurditik, Gipuzkoatik eta Nafarroatik etorritakoek.

ASIER IMAZ

Aurrera Perra Taldeak *Leitza Mugaz-Muga* egitasmoa antolatu zuen iragan asteburuan. Larunbatean Leitzatik Goizuetarako bidea egin zuten bildutako 63 zaldien

gainean. Itzulerako bidea berriz igandean egin zuten. *Mugaz-Muga 2008* ekimenean, Nafarroa, Gipuzkoa eta Lapurditik gerturatutako zaldi zaleek hartu zuten parte.

«Gehiago ezin da eskatu»

Antolatzaile lanetan aritu ziren Aurrera Perra Taldeko kideak «oso gustura» agertu ziren zaldi irteerarekin, «oso egun polita» igaro zutela aipatuz. «63 zaldi bildu ginen eta Inguruartearen gosaldia on-

doren, Urepel eta Mandoegetik berrera Goizuetara iritsi ginen 17:30ak inguruan. Zaldiak prestatu, gitarra eta armonika atera, ... Iriarterek gurdia eraman zuen eta herriarrak paseatzen ibili zen. Oso giro polita». Iluntzean Elkarrean afaldu zuten eta «zerbitzari lanetan ibili zirenei eskerrak ematera joan ginenean, beraiek eman zizkiguten eskerrak horrelako giroa eramateagatik. Giroa jartzen, armonikarekin artista bat izan genuela aipatu beharra dago».



Behin Goizuetara iritsi ondoren, Iriarteren gurdiaekin herriarrak pasean ibili zituzten. HITZA

Lasa eta Zabalari omenaldiak Tolosan

Politika » XXV. urtemugan hainbat ekitaldi egingo dituzte bi gazte tolosarren inguruan; bihar 19:30ean lore eskaintza monolitoan.

A. IMAZ

Joxi Lasa eta Joxean Zabalaren bahiketa, tortura eta erahilketaren XXV. urteurrenaren aurrean, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Tolosan.

Bi gazte tolosarrak GALEk erail zituen Baionan (Lapurdi) 1983. ur-

tean bahitu ondoren. 12 urte desgerturik egon ostean, bi gorpuk Alacanteko (Herrialde Katalanak) Busot herrian aurkitu zituzten lurperaturik.

Bihar 19:30ean lore eskaintza

Lasa eta Zabalaren omenez eraikitako monolitoan, Benta-Haundin, lore eskaintza egingo ditute bihar 19:30ean bitolosarrei.

Manifestazioa larunbatean

Urriak 18an, larunbatean, Tolosan manifestazioa egingo dute 19:00etan Triangulotik irtedea.



Laburrak

Nafarroa Oinez-era joateko autobusa Gaztetxetik

LEITZA » Atakabeltz Gaztetxeko kideek autobusa antolatu dute Nafarroa Oinez 2008ra joan-etorria egiteko. Aurten Jaso Ikastolaren alde ospatuko da jaia Iruñean. Bertara Leitzatik joan nahi duenak Torrean edo Gaztañaga Tabernan eman dezake izena. 9 euro ordaindu beharko da autobusa eta 08:45ean irtengo da Gaztetxe ataritik. Atakabeltzetik euskararen aldeko egun honetan parte hartze-ko deialdia luzatu dute.

Gripearen aurkako txertaldia abian

LEITZA » Gripearen aurkako txertaldia martxan da jadanik. Azaroaren 16ra bitarte eskainiko du Nafarroako Osasunbideak zerbitzu hau Leitzako Osasun Etxean. Erizainari txanda eskatzeko, aldezturik 948 51 08 00 telefono zenbakira deitu behar da 08:00etatik 10:00etara.

Eskulan eta jantzigintza ikastaroak Beti Gaztetik

TOLOSA » Amartzotz auzoko Beti Gazteak Jubilatuen Elkarteak, eskulan eta jantzigintza ikastaroak antolatu ditu. Ikastaro hauetan parte hartu nahi duenak edo informazio gehiago jaso nahi duenak 653 74 71 92 telefono zenbakira deitzea besterik ez dauka. Eskulan eta jantzigintza klase praktikoetan parte hartzea erabakitzen dutenek, 40 euro ordaindu beharko dituztela azaldu dute Beti Gazteak Jubilatuei Elkartetik.

Lur Korta ipuin kontalaria gaur 17:30ean

IBARRA » Ibarroko Udal Liburutegiak 4-8 urte bitarteko haurrei zuzendutako ekitaldia antolatu du gaur 17:30ean Benito Izagirre kultur etxean. Bertara gerturatzeko haurrek, Lur Kortak zuzendutako ipuin kontaketa parte hartze-ko aukera izango dute; entzunaz eta gozatuaz.

BERRIAREN edizio digitalaren diseinatzeko/programatzeko lanpostua betetzeko pertsona bat behar da. (Enref. 200810 EH-DP)

Honako ezaugarri hauek bete behar ditu:

- Ezinbestekoa da HTML, PHP eta MySQL programazio lenguaiekin eskaintza izatea.
- XHTML eta CSSrekin markatzen esperientzia izatea.
- Photoshop eta Flash programak ezagutzea.

Eskaintzen da:

- 12 hilabeteko kontrata biza dutekei.
- Lanari berehalako hasiera izango du.

Bidali curriculuma gb@berria.info helbide elektronikora, erreferentzia zehaztuz, ariaren 22a baino lehen.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta/Idaia: 687 410 022. anoeta/idaia@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra/Idaia: 687 410 032. ibarra/idaia@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza/Idaia: 687 410 118. leitza/idaia@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitza/Idaia beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Ibarra.** Lur Kortaren ipuin kontaketa 17:30ean Benito Izagirre kultur etxean. 4-8 urteko haurrei zuzenduta dago.
- **Ibarra.** *Ibarra Galtzakomik* komiki lehiaketa antolatuta dute. Lanak Galtzaundi Euskara Taldearen egoitzan aurkeztu behar dira (Tolosako Nafarroa etorbidean).
- **Ikaztegieta.** Helduentzako bertso eskola bat jartzeko nahia dago. Gutxieneko sei lagunez osaturiko taldea behar da. Klaseak astean behin. Izen-ematea udaletxean (943 65 33 29).
- **Tolosa.** Igandean Iruñean egindoen Nafarroa Oinezera joateko autobusa antolatu dute. Izen-ematea, Galtzaundi Euskara Taldean 11 eurotan (bazkideek 8 eurotan).
- **Villabona.** Fleming inguruan eraikitzen ari diren etxebizitza tasatuetarako izena eman daiteke udaletxean.
- **Zizurkil.** Teodoro Hernandorena VII. Ipuin Lehiaketarako lanak udal bulegoetan entregatu daitezke. 6 urtetik gora. Gaia libre. Aiztondo, Anoeta/Idaia eta Andoingo jendearentzat.

Hitzaldiak

- **Ibarra.** Aulas Kutxak antolatuta, Anoetako Alkartasuna Biltokian hitzaldia izango da, 18:30ean. Gaia *Maitasuna eta afektibitatea adinekoen artean* izango da eta hizlaria Ana Oiarzun.

Erakusketak

- **Ibarra.** Joseba Antxustegiarteren Euskarazko Komikien erakusketa Benito Izagirre kultur etxean 17:00etatik 20:00etara. Egileak komikia nola sortu azalduko du bihar.

Mendi irteerak

- **Tolosa.** Oargi mendi elkartek Neuville mendira (Pirinioak, 3.092 metro) irteera antolatuta du astebururako. Izen-ematea, 637 830380 telefono zenbakian eman daiteke.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.

«Berriz errepikatzen moduan»

Ikaztegieta » Pilar Eguna igandean ospatu zuten, duela urte batzuk jai egun polita zena; aurten ere, «ondo» atera da.

NEREA URBIZU

Igandean Pilar Eguna ospatu zuten Ikaztegieta, hainbat urtetan utzita izan ondoren. Herenegun bildu ziren antolatzaileak, eta balantzea egiteko orduan, ez da txarra izan sentsazioa. «Urte batzuk egin gabe egon da eta berreskuratzeari ez da gaizki joan. Herriaren erantzuna ona izan da ohitura galdu osteko lehen festa honetan».

Urtetan zehar egiten zen moduan, meza ospatu zuten lehenik Pilarren ermitan, eta hamaiketako ondoren han bertan, trikitixa doinuez alaituta. Hamaiketakoan ere jende mordoak bildu zen. Arratsaldean, herriko Ostatuko Lehen Mus Txapelketan ere bertan diote antolatzaileak: «Lehena izateko 10 bikotek eman zuten izena; hau da, herriko 20 lagun biltzea erantzun ontzatjo dugu».

Kutturru parkean obrak

Kutturru parkean ia bertatik bertara dago, ermitaren ingurutik gora aldera. Aurten parkeari pega eginda



Hamaiketako ermitaren ondoan egin zuten, duela urte batzuk egiten zuten bezala, HITZA

obrak egiten ari dira, Ibiurko urtegiarekin batera araztegia egiten ari dira herrietan, eta honakoa Ikaztegietaokari dagokio.

Horregatik, datorren urtean festa hau berriz egiteko asmoa erakutsi dute udaletxeok, «baina festa handiagoa egitea espero dugu, ermitatik gero Kutturrura joanez, eta abar».

Kutturruko obrek martxora arte iraungo dute, gutxi gorabehera: datorren Pilarrerako bukatuta egongo dira, beraz.



Meza Pilar ermitan ospatu zuten, HITZA

A Agurrak



Urte askoan!

Bernarda Mujika (Amezketza). Gaur 83 urte. Segizazu hain guapa izaten. Irene, Ainhoa eta familia guztiaren partetik. Muxu handi bat.



Urte askoan!

Maddik igandean 2 urte egin zituen, eta Eneko 4 bete ditu gaur. Segi beti bezain alai. Muxu handi bat Añorgako familiaren partetik.

Pertsona bat behar da Tolosaldeko kafetegia-okindegi baterako
616 73 28 97
Bidali zure cv: barmen@hotmail.es